

Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2060

AGINDUA, 2010eko abenduaren 23koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Batzordearen 2010eko azaroaren 29ko C(2010) 8507 Erabakia noiz jarriko den indarrean argitaratzeko dena.

Elikagaien kalitate programak sustatzeko eta parte hartzeko ekintzetarako diru-laguntzei buruzko Dekretua (Bikain Programa) bigarren aldiz aldatzen duen azaroaren 9ko 295/2010 Dekretuaren azken xedapeanean jaso bezala, dekretu osoa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharramunean jarriko da indarrean, lehenengo artikulua izan ezik; izan ere, artikulua hori indarrean jarriko da Euskal Herriko Landa Garapenerako 2007-2013 Programa aldatzen duen Batzordearen Erabakia EHAAn argitaratzen den egun berean; erabaki hori Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko pertsona titularren agindu bidez argitaratuko da.

Lehenengo artikulua horretan, kontrol egoera batzuk aipatzen dira. Batzuetan, «kontrol eta ziurtatze organismoak» dira, eta UNE-EN 45011 araua bete eta berorren arabera ziurtatuta egon behar dira, 2010eko maiatzaren 1etik (510/2006 Arautegiaren 11.3 artikulua). Beste kasu batzuetan, «kontrol agintariak» dira jarduleak eta objektibotasun eta inpartzialtasun bermeak eskaini beharko dituzte, langile kualifikatuak eduki behar dituzte eta eginkizunak betetzeko baliabide nahikoa ere (834/2007 Arautegiaren 27.4 artikulua eta 882/2004 Arautegiaren 4. artikulua).

Batzordeak 2010eko azaroaren 29an hartutako C(2010) 8507 Erabakian Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren berraztertzea onartzen da 2007-2013 programazio ekitaldirako eta Landa Garapenerako Programa onartzeko 2008ko otsailaren 15eko C(2008) 704 Erabakia aldatzen da. Aldaketen artean, azaroaren 9ko 295/2010 Dekretuaren lehenengo artikulua sorrarazi duena dago. Erabakiak 2010eko maiatzaren 24tik aurrera izango ditu ondorioak. Ondorioak atzeraeraginezkoa da Batzordearen 2005eko irailaren 20ko 1698/2005 Arautegiaren 71.1 artikulua 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorrita.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

2060

ORDEN de 23 de diciembre de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se da publicidad a la fecha de efectos de la Decisión de la Comisión C(2010) 8507 de 29 de noviembre de 2010.

La disposición final del Decreto 295/2010, de 9 de noviembre, de segunda modificación del Decreto de ayudas a las actividades de promoción y participación en programas de calidad de los alimentos (Programa Bikain), dispone que la entrada en vigor de lo dispuesto en su artículo primero se pospondrá hasta que se publique en el BOPV la Orden de la persona titular del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, que dé publicidad a la fecha de efectos de la Decisión de la Comisión de autorización de la modificación del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2007-2013.

El precitado artículo primero da cabida a las diferentes situaciones existentes en materia de control. En unos casos se trata de «Organismos de control y certificación» los que actúan, que están obligados a cumplir con la norma UNE EN 45011 y a estar acreditados de conformidad con la misma a partir de la fecha de 1 de mayo de 2010 (Reglamento 510/2006 artículo 11.3). En otros casos, son «Autoridades de control» las actuantes, cuya obligación (artículo 27.4 del Reglamento 834/2007 y artículo 4 del Reglamento 882/2004) será la de ofrecer las adecuadas garantías de objetividad e imparcialidad, y disponer del personal cualificado y de los recursos necesarios para desempeñar sus funciones.

La Decisión de la Comisión C(2010) 8507 de 29 de noviembre de 2010 aprueba la revisión del Programa de Desarrollo Rural del País Vasco para el período de programación 2007-2013 y se modifica la Decisión C(2008) 704 de la Comisión de 15 de febrero de 2008, por la que se aprueba el programa de desarrollo rural. Entre las modificaciones se encuentra la que ha dado lugar al artículo primero del Decreto 295/2010 de 9 de noviembre. La fecha de efectos de la Decisión es el 24 de mayo de 2010. La aplicación del efecto retroactivo tiene su base en el párrafo 2.º del artículo 71.1 del Reglamento 1698/2005 del Consejo de 20 de septiembre de 2005.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBATZI DUT:

Batzordearen 2010eko azaroaren 29ko C(2010) 8507 Erabakia 2010eko maiatzaren 24an jarriko dela indarrean argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 23a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

En su virtud

RESUELVO:

Publicitar que la fecha de efectos de la Decisión de la Comisión C(2010) 8507 de 29 de noviembre de 2010, es el 24 de mayo de 2010.

En Vitoria-Gasteiz, a 23 de diciembre de 2010.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.